



2018KO LEHENENGO DEIALDIA ATARIKO PROBA

Txanda-aldaketarik ez da onartzen, baldin eta ezinbesteko arrazoi batengatik ez bada eta idatziz frogatuta

Idazkia aurkezteko epea: otsailaren 1etik 15era bitartean

➤ Azterlekuak eta lekuak:

AZTERKETARA JOAN BAINO LEHEN KONPROBATU ZURE TXANDA, LEKUA ETA GELA HEMEN:
(kontuan hartu bi txanda direla, konprobatu zure txandari dagokion hasiera-ordua)

<http://www4.hezkuntza.net/w22MatriculacionWar/comunOP/w22opciones2.do?c=121&t=1>

⇒ "Onartutako eskabideak / notak"

Eguna: 2018ko otsailaren 24an

ARABA:

Lekua: EHUko campus-a. **Letren Fakultatea** Unibertsitateko ibilbidea, 5
GASTEIZ

BIZKAIA:

Lekua: EHUko campus-a. **Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (SARRIKO)**
Agirre lehendakaria, 83 BILBAO

GIPUZKOA:

Lekuak: EHUko campus-a. DONOSTIA
- **Ignacio M^a Barriola eraikina.** Elhuyar plaza, 1. (Ibaeta auzoa)
- **Elbira Zipitria eraikina.** Ondarreta pasealekua, 18

OHARRA: Azterketariaren ardura da 2 zenbakiko arkatza, borragoma, zorrozkailea eta nortasun agiria eramatea (edo, NANik ez balu, pasaporte, gidatzeko baimena edo egoitzakoa, besterik ez). Fotokopiek ez dute balio.

EGA: Informazio gehiagorako Hezkuntzaren Lurralde Ordezkaritzetara jo dezakezu.

ATARIKO PROBA

(Azterketarientzako oharrak)

PROZEDURA

1. ADIERAZITAKO ORDUAN AZTERKETA-LEKUKO SARRERAN EGON
Bi txanda egon daitezke
2. ERAIKINERA SARTUTAKOAN, BILATU DAGOKIZUN GELA
Karteletan adierazita egongo da, deituren arabera
3. GELAKO ATE ONDOKO ZERRENDAN KONPROBATU BAZAUDELA
Ez bazaude, joan informazio-gelara.
4. GELARA SARTZEKO IDENTIFIKAZIO-AGIRIA ERAKUTSI BEHAR DUZU
Identifikazio-agiririk gabe ezin da azterketa egin.
5. JESARRI ADIERAZIKO ZAIZUN LEKUAN
6. TELEFONOAK ITZALITA ETA GORDETA EDUKI BEHAR DIRA
Telefonoa piztuta edo agerian edukitzeak azterketa baliogabetzea ekarriko du.
7. AZTERKETA HASI AURRETIK OHAR BATZUK EMANGO ZAIZKIZU:
 - Telefonoa itzalita edo gordeta edukitzeko.
 - Probatik, denbora amaitzean irtengo zaretela denok. Ezin dela lehenago irten.
 - Ezin dela hitz egin. Ez mugitzeko. Ezer behar izanez gero, eskua jasotzeko.
 - Mahai gainean bakarrik: karneta/arkatza/borragoma/boligrafoa/ (erlojua)
 - Azterketa 50 minutukoa dela, gehi bost minutu dena konprobatzeko.
8. AZTERKETA MATERIALAK BANATUKO DIRA
Konprobatu koadernotxoan ez dagoela ageriko akatsik: inprimaketa txarra...
9. DENBORA AMAITZEKO BOST MINUTUREN FALTAN, OHARRA EMANGO DA
10. PROBARAKO DENBORA BETE DENEAN, OHARRA: BOST MINUTU
Datuak eta markak behar bezala daudela konprobatzeko
11. DENBORA BETE DENEAN SARTU ERANTZUN ORRIA KOADERNOTXOAN
Itxaron geldi material guztiak bilduta egon arte.
12. MATERIAL GUZTIAK JASOTA DAUDENEAN IRTENGO ZARETE DENOK
13. EZ GERATU ATEAN. HURRENGO TXANDAKOAK ITXAROTEN EGON DAITEZKE